



PRENTSA-OHARRA

Hogeita hamar bat enpresek euskal produktuen kalitatea eraman dute XXVI. Gourmet Aretora.

Ingurumen, Lurraldearen Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hazi Fundazioak (landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa), euskal produktuen bitartez, Gourmet Aretoan parte hartuko dute Madrilén, martxoaren 5etik 8ra bitartean.

Programatutako jardueren artean aipatzekoak dira Eusko Label online dendaren aurkezpena eta Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Deituraren 25. urteurrenaren ospakizun-ekitaldia.

Euskal produktuen kalitatea berriro ere Euskadik Gourmets 2012 azokan izango duen presentziaren protagonista bilakatuko da; janari eta edarien azoka garrantzitsu honek bere hogeita seigarren edizioa du aurtengo hau. Eusko Jaurlaritzak sustatutako stand horretan, martxoaren 5etik 8ra bitartean, Euskadiko Elikagaigintza Industriaren hogeita hamar bat enpresa izango dira.

Bisitari profesionalek sustapen-jarduera berezietan parte hartu ahal izango dute, hala nola **ZUZENeko SUKALDARITZA** erakusketetan, **gutxi gorabehera 15 minutuko iraupena dutela**; Eusko Jaurlaritzaren stand horretan bertan egingo dira erakusketok. Sukaldaritzako profesionalek **errezeta desberdinak prestatuko dituzte, inprobisatzen errazak diren pintxoetatik hasi eta plater landuetaraino, denek ezaugarri komun bat dutela; lehengai.**

Gainera, erakusketan parte hartzen duten upategien **ARDOAREN GALERIA** kokatuko da Euskadiren standean, eta bertan, **Arabako Errioxako ardoen, Txakolinaren, Sagardo Naturalaren eta Patxaranaren** dastatze ugari eskainiko dira, sommelier baten gidaritzapean.

Eskaintza gastronomikoa askotarikoa izango da, elikagaigintzako sektore guztiek parte hartuko dute eta produktu naturaletik hasi eta IV. eta V. gamako ontziratuetaaraino bilduko dituzten aurkezpenak egingo dira.

Gourmet Klubaren nazioarteko aretoa 1986. urtean sortu zen goi gamako produktuen ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topagune izateko helburuz. Europan kalitateko gastronomiaren sektorean erreferentzia garrantzitsuenetako bat den azoka profesional honek jarduera paraleloen programa aberats bat du, hala nola mahai-inguruak, erakusketak, lehiaketak, eztabaidak eta txapelketak.

Eusko Label Euskadiko produktuen dendaren aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak Gourmet Aretoaren hogeita seigarren ediziorako aurreikusitako jardueren artean aipatzekoa da **Eusko Label online dendaren aurkezpena, datorren**



asteartean, martxoak 6, goizeko

11:00etan. www.euskolabeltienda.com espazio birtuala kalitate ziurtatua duten Euskadiko produktuen erakusleihu ofiziala izateko helburuz sortu da.

Denda berrian Eusko Label eta Euskal Baserri produktuak eta beste marka bermedun batzuk topatu ahal izango ditugu, baita Euskadin dauden bost Jatorri Deituren barruan sailkatuta dauden produktuak ere, beren Kontseilu Arauemaileek kudeatuta.

Plataforma digital hori HAZI fundazioak kontrolatua eta kudeatua dago; korporazio hori Itsasmendikoi, IKT eta Kalitatea Fundazioa enpresek osatua dago. Euskal zerbitzuak modu orokor batez bateratzeko helburuz sortu da HAZI Korporazioa, lehen sektorearen, elikagaigintzaren, landa-ingurunearen eta itsas bazterraren lehiakortasuna eta iraunkortasuna sustatzeari begira.

Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Deiturak bere 25. urteurrena ospatuko du

Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Deiturak bere 25. urteurrena ospatuko du Eusko Jaurlaritzaren standean, datorren **asteazkenean, martxoak 7, eguerdiko 13:30ean**. Erakunde hau 1987. urtean sortu zen latxa ardien eta Karrantzako ardien artzaina eta benetako Idiazabal gaztaren ekoizlea babesteko, eta bide batez, kontsumitzaileari horren jatorria eta kalitatea ziurtatzeko.

Gaur egun 500 ganadutegi eta 100 gaztandegi baino gehiago atxikita daude Jatorrizko Deitura honi, eta gehienek beren ustiapeneko esnea erabiliz ekoizten dituzte beren produktuak. Horien tamainak, edonola ere, artisau erako zainketa ziurtatzen du, bai prestakuntza-aldian eta bai umotze-aldian edo fintze-aldian ere. Esnearen eta gaztearen ekoizpena Euskadin eta Nafarroan egiten da beti (Erronkari bailaran izan ezik).

ZER. EUSKADIK 2012ko Gourmet Aretoan parte hartuko du.

NOIZ. Martxoaren 5etik 8ra.

NON. Madrilgo Erakustazokan, IFEMA. 3. Pabiloia, 3B24-1 eta 3B242 uharteak (Eusko Jaurlaritzaren Standa).

PROGRAMATUTAKO JARDUERAK.

- ✓ Eusko Label Euskadiko produktuen dendaren aurkezpena.
Asteartea, martxoak 6, 11etan.
- ✓ Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Deituraren 25. urteurrenaren ospakizuna.
Asteazkena, martxoak 7, 13.30ean.

I. ERANSKINA: Euskadiko Elikagaigintza Industriako enpresa parte-hartzaileen zerrenda

IZENA	WEB GUNEA	Ikusgai jarriko dituzten produktuak
ALMA DE CACAO	www.almadecacao.com	Goi-kalitateko txokolateak
ALTÚN	www.bodegasaltun.com	Arabako Errioxako ardoa (Errioxa J.D.Ka.)
BACALAO GIRALDO	www.bacalaogiraldo.com	Bakailao gezatua.
BACALAO SALKORTA	www.bacalaosalkorta.com	Bakailao gezatua, bakailao izoztua, bakailao gazitua, bakailao prestatua, olagarro egosia.
BODEGAS GOMEZ DE SEGURA	www.gomezdesegura.com	Arabako Errioxako ardoa (Errioxa J.D.Ka.)
BODEGAS LUIS ALEGRE	www.luisalegre.com	Arabako Errioxako ardoa (Errioxa J.D.Ka.)
BODEGAS Y VIÑEDOS LABASTIDA - SOLAGÜEN-	www.bodegaslabastida.com	Arabako Errioxako ardoa (Errioxa J.D.Ka.)
GETARIAKO TXAKOLINA J.D.K.A.	www.getariakotxakolina.com	J.I. duen Txakolina Getariako Txakolina
IDIAZABAL GAZTA J.D.B.K.A.	www.doidiazabal.com	Idiazabal Gazta J.D.B.K.A.
CONSERVAS NARDIN	www.conservasnardin.com	Antxoa-xerrak, hegaluzea oliotan, antxoa ozpinetan, antxoa ketua, berdel ketua, bokarta-pintxoak
CONSERVAS ORTIZ, S.A.	www.conservasortiz.com	Hegaluzea, antxoak, hegalabur argia, plater prestatuak, sardinak, arrabak, berdel fritutua.
CONSERVAS SERRATS	www.serrats.com	Hegaluzea, hegalabur argia, Kantauriko antxoa, muskuiluak, sardinatxoak
CONSERVAS ZALLO S.A.	www.zallo.com	Arrain-kontserbak eta -erdikontserbak.
GELTOKI	www.geltoki.net	Gozogintza izoztua.
GORROTXATEGI	www.gorrotxategi.com	Pastak, txokolateak, turroiak
GOURMEKI	www.bacalaogiraldo.com	Itsasoko zenbait produktu.
HAMBURGUESAS EIZAGUIRRE	www.hamburguesaseizaquirre.com	Hanburgesak % 100 abelgorri-okela
EUSKO LABELA	www.euskolabel.net	Euskadiko Abelgorri Okela, Euskal Baserriko Oilaskoa, Eztia, Euskal Esne Bildotsa, Euskal Esnea, Hegaluzea eta Hegalaburra, Euskal Baserriko Arrautza, Arabako Patata, Gernikako Piperrak, Ibarrako Piparrak, Euskal Tomatea, Euskal Babarrunak, Euskal Letxuga, Euskal Sagardoa. Produktu hauek guztiak Eusko Label kalitatearen bermeaz identifikatuta daude.
HEREDAD UGARTE	www.egurenugarte.com	Arabako Errioxako ardoa (Errioxa J.D.Ka.)
LUMAGORRI	www.lumagorri.com	Eusko Labela duen baserriko oilaskoa
PATES ZUBIA	www.pateszubia.com	Ahate eta antzarren eratorriak, pateak eta mousseak, esterilizatuak eta pasteurizatuak, txistorra, piper-haragiaren landare-kontserba, ahate eta antzarren haragi freskoak merkaturatzea.
PATXARAN BARAÑANO	www.patxaranbaranano.com	Patxarana, belar-likorea, uxuala, krema-likorea, limoi-likorea, kafe-likorea, brandya, fruta-likorea, anisa.



IZENA	WEB GUNEA	Ikusgai jarriko dituzten produktuak
SAL DE AÑANA/ ANANAKO GATZA	www.saldeanana.com	Gatz minerala, gatz-lorea, gatz likido minerala, ardo gatz-lorea, ardo-gatza.
SALICA	www.salica.es	Hegaluze, hegalabur argi, Kantauriko antxoaren kontserbak, Galiziako itsasadarretako berezitasunak, izoztuak, aurrez prestatutako hegaluze/hegalaburra, MSC hegaluze ziurtatua.
SUKIKER	www.giraldococinamosporti.com	4. eta 5. gamako produktuak, bakailoa eta beste.
URKABE	www.grupogourmetokin.es	Urdaiazpiko egosi iberikoa, máxima tonel urdaiazpiko egosia, tonel indioilar-bularkia, máxima txerri-burua, artisau erako urdaiazpiko egosi aparta